

ELGOIBARKO
UDALA



AYUNTAMIENTO
DE
ELGOIBAR

**EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLANA
ELGOIBARKO UDALEAN
V. plangintzaldia (2013-2017)**

PLAN DE NORMALIZACIÓN
DEL USO DEL EUSKERA
DEL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR
V periodo de planificación (2013-2017)

Elgoibar, 2013ko azaroa

ELGOIBARKO
UDALA



AYUNTAMIENTO
DE
ELGOIBAR

AURKIBIDEA

SARRERA

1. V. PLANGINTZALDIAREN AURREKARIAK.

- 1.1. IV. plangintzaldiaren ebaluazioari buruzko zenbait datu esanguratsu.
- 1.2. V. plangintzaldirako proposaturiko lan ildoak.

2. ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA.

3. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA.

4. V. PLANGINTZALDIRAKO HELBURU OROKORRAK.

- 4.1. Egitasmo honen helburu orokorrak.
- 4.2. Arlokako helburuak.

5. NORMALIZAZIO EKINTZAK.

- 5.1. Hizkuntza prestakuntzari dagozkion normalizazio ekintzak.
- 5.2. Baliabide materialei dagozkien normalizazio ekintzak.
- 5.3. Hizkuntza irizpideak.

6. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERARAKO JARRAIBIDEAK.

- 6.1. Lanpostuen hizkuntza eskakizunak.
- 6.2. Lanpostuen derrigortasun datak ezartzeko jarraibideak.
- 6.3. Hizkuntza Ofizialen erabilera zuzenerako jarraibideak.

7. ADMINISTRAZIO ATAL-ELEBIDUNAK ETA EUSKARAZKOAK.

8. AZPIEGITURA.

ERANSKINAK:

1. ERANSKINA. Elgoibarko Udaleko lanpostuak eta hizkuntza eskakizunak.
2. ERANSKINA. Elgoibarko Udaleko Administrazio Atalen Sailkapena eta Proposamenak.

ÍNDICE

INTRODUCCIÓN

1. ANTECEDENTES DEL V PERIODO DE PLANIFICACIÓN.

- 1.1. Datos significativos sobre la evaluación del IV periodo de planificación.
- 1.2. Líneas de trabajo propuestas para el V periodo de planificación.

2. ÁMBITO DE APLICACIÓN Y PERIODO DE VIGENCIA.

3. ÍNDICE DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO.

4. OBJETIVOS GENERALES DEL V PLAN.

- 4.1. Objetivos generales de este plan.
- 4.2. Objetivos por ámbitos.

5. ACTUACIONES DE NORMALIZACIÓN.

- 5.1. Actuaciones de normalización correspondientes a la formación lingüística.
- 5.2. Actuaciones de normalización correspondientes a los recursos materiales.
- 5.3. Criterios lingüísticos.

6. CRITERIOS DE APLICACIÓN EN EL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES.

- 6.1. Perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo.
- 6.2. Criterios para la asignación de fechas de preceptividad a los puestos de trabajo.
- 6.3. Consideraciones a tener en cuenta para el uso correcto de las lenguas oficiales.

7. UNIDADES ADMINISTRATIVAS BILINGÜES Y DE EUSKERA.

8. INFRAESTRUCTURA

ANEXOS:

- ANEXO 1. Puestos de trabajo y perfiles lingüísticos del Ayuntamiento de Elgoibar.
- ANEXO 2. Clasificación de las Unidades Administrativas del Ayuntamiento de Elgoibar y Propuestas.

ELGOIBARKO
UDALA



AYUNTAMIENTO
DE
ELGOIBAR

SARRERA

Ezaguna denez, euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldika kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. Lehen plangintzaldia 1990ean jarri zen martxan, eta 2013ko urtarrilaren 1ean eman zitzaion hasiera bosgarrenari.

Lehenengo plangintzaldiak Administrazioako langileak euskalduntzea eta alfabetatzea izan zuen helburu nagusi. Horrela, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman ziren euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileen kopuruan. Dena den, bigarren plangintzalditik aurrera administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko neurri osagarriak hartu beharra jaso zen.

Hori horrela, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak jaso ziren aipatu Dekretuaren 18. atalean. Dekretuak indarrean jarraitzen du.

Urrats horiekin loturik, Elgoibarko Udalak indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez, berari dagokion **euskararen erabilera normalizatzeko plana** landu zuen.

Bada, 2013an hasi eta 2017ko abenduan amaituko den V. Plangintzaldi honetan ere, orain arteko bidea sendotu nahi da, eta ezagutzak garrantzia izaten jarraituko badu ere, erabilera izango da erronka nagusia; *euskara ere lanerako hizkuntza* "normala" bilakatu nahi dugu, eta, modu horretan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu. Horretarako, langile gehiago sartuko dira erabilera planetan, eta motibazioaren bidez, metodologia erraza eta malgua erabilita, eta beharrezko baliabideak jarriz, hizkuntzen erabileran, berdintasunerantz joko da: euskaraz eta gaztelaniaz jardutera; hori bai, euskarazko sortze lana areagotuta.

Horixe izango da, hain zuzen ere, V. Plangintzaldiaren helburua: *euskara ere lan hizkuntza* "ohikoa" bilakatzea, hau da, Administrazioan bi hizkuntzen erabileran berdintasunerantzko pauso eraginkorrak ematea. Administrazioak bermatu egin behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzearen aukera, eta une

INTRODUCCIÓN

Es bien sabido que el proceso de normalización lingüística de las Administraciones vascas se gestiona por periodos de planificación de cinco años. El primero comenzó en 1990 y en enero de 2013 ha dado comienzo el V. Plan.

El primer periodo de planificación tuvo como objetivo euskaldunizar y alfabetizar a los empleados de la Administración. Así, en este primer periodo se dieron importantes avances cuantitativos en el conocimiento de la lengua. No obstante, a partir del segundo periodo de planificación, la Administración vio que era necesario cuantificar, no sólo el conocimiento, sino también el uso de la misma y para ello se tomaron medidas complementarias.

Con el fin de hacer frente a esta realidad, el Decreto 86/1997 dispuso que en todas las administraciones locales existiera un Plan de Normalización del Uso del Euskera. En consecuencia, en el artículo 18 de este mismo Decreto se recogieron las bases mínimas requeridas.

Consecuentemente, el Ayuntamiento de Elgoibar, siguiendo la normativa en vigor y los criterios y ordenanzas de su ámbito competencial, ha dispuesto el **plan de normalización del euskera** correspondiente.

En este V. periodo que comienza en 2013 y finalizará en diciembre de 2017 se pretenden también afianzar los logros conseguidos hasta el momento y, pese a que el conocimiento del euskera seguirá siendo una piedra angular del mismo, el reto principal será extender el uso del euskera, con el objetivo de que se convierta en una lengua de uso normal y garantizar así los derechos lingüísticos de la ciudadanía. Para lograr este objetivo, se incluirá un mayor número de personal en los planes de uso, se empleará una metodología sencilla y flexible, y se dispondrán los recursos necesarios; además, se motivará a los trabajadores para que usen indistintamente tanto el euskera como el castellano, incrementando, en todo caso, el número de actuaciones y comunicaciones originadas y materializadas en euskera.

Este será precisamente el objetivo de este V. Plan: que el euskera también sea lengua "habitual" de trabajo, es decir, que la Administración dé pasos eficaces para que el uso de las dos lenguas sean utilizadas indistintamente. La Administración debe potenciar y posibilitar la utilización de las dos lenguas



honetantxe eman daiteke urrats garrantzitsu hori, hain zuzen ere, aurreko plangintzaldien bitartez hein handi batean, ezagutza maila ziurtatu delako eta erabilerarako pausuak ere eman direlako.

Aurretik burututako plangintzaldiei egokitzapenak egin ostean, argi dago horien kudeaketa eta, batez ere, jarraipena egin behar zaiela, emankorrak izan daitezen.

1. V. PLANGINTZALDIAREN AURREKARIAK.

1.1. IV. Plangintzaldiaren ebaluazioari buruzko zenbait datu esanguratsu.

Elgoibarko Udalaren IV. Plangintzaldiaren ebaluazioko datu esanguratsuenen laburpena esparruz esparru:

Datu kuantitatiboek dagokienez:

* **Hizkuntza eskakizunen betetze maila:** lanpostuak guztira 69 dira. Lanpostu horietatik 55 lanpostuk (% 79,71) du derrigortasun data ezarria. Horietatik, 51 lanpostu dira beteta daudenak (titularrekin edo lanpostuaren jabe izan gabe, lanpostuan diharduten okupatzaileekin). Horietatik, % 84,31k (43 langile) egiaztatu du dagokion hizkuntza eskakizuna, % 7,84k dagokiona baino baxuago bat eta ez du ezer egiaztatu % 7,84k. Gainera, derrigortasun datarik ez duen lanpostuen kasuan, % 28,57k egiaztatu du dagokion hizkuntza eskakizuna. Ondorioa bistan da, 47 langile (langile guztien % 74,60 dira euren lan eginkizuna osorik edo partez euskaraz bete ditzaketanak.

* **Udal ordezkarien euskararen ezagutza:** udal ordezkarien (guztira, 17) %88,23 dira euskara ulertzeko gai, eta %82,35 dira euskaldun alfabetatuak.

* **Ahozko komunikazioa:** Sailetan jasotako datuen arabera, leihatilan harrera egiterakoan, euskara harremanen %50ean erabiltzen da. Eta ahozko barne harremanetan, lan bileretan %60 inguru egiten da euskaraz, eta batzordeetako bileretan % 43,63 egiten da euskaraz.

* **Idatzizko komunikazioa:** Elebitasuna da nagusi.

oficiales y creemos que éste es el momento para ello, un momento en el que gracias a los planes anteriores está garantizado un buen nivel de conocimiento del euskera y además, se han dado pasos para su uso.

Después de evaluar y hacer los cambios pertinentes a los planes desarrollados hasta el momento, está claro que para que éstos den su fruto, es necesario realizar una buena gestión y seguimiento de los mismos.

1. ANTECEDENTES DEL V PERIODO DE PLANIFICACIÓN.

1.1. Datos significativos sobre la evaluación del IV periodo de planificación.

He aquí una síntesis de los datos más significativos del IV plan del Ayuntamiento de Elgoibar en cada una de las áreas:

En lo que se refiere a los datos cuantitativos:

• **Grado de cumplimiento de los perfiles lingüísticos:** de un total de 69 puestos de trabajo, 55 plazas (79,71 %) tienen fecha de preceptividad, 51 de las cuales están cubiertas, bien por los titulares, bien por quienes las ocupan en régimen diferente a la propiedad. De esas 51 plazas, el 84,31% (43 trabajadores/as) han acreditado el perfil lingüístico que les corresponde; el 7,84 %, uno más bajo; y el 7,84 %, ninguno. Asimismo, el 28,57 % del personal en puestos de trabajo sin fecha de preceptividad han acreditado el perfil lingüístico que les corresponde. La conclusión salta a la vista: 47 trabajadores/as (el 74,6 % de los puestos ocupados) pueden cumplir con la totalidad o una parte de sus funciones laborales en euskera.

• **Conocimiento del euskera por parte de los representantes institucionales.** El 88,23% de los representantes municipales (en total, 17) son capaces de entender el euskera, y el 82,35% son personas alfabetizadas en euskera.

• **Comunicación oral.** Según los datos recopilados en los diferentes departamentos, el euskera se emplea en el 50% de las recepciones en ventanilla. Por otro lado, en las relaciones internas, en las reuniones de trabajo el 60% de las relaciones se mantienen en euskera, y en las comisiones se habla euskera en un 43,63%.

• **Comunicación escrita:** Predomina el bilingüismo.



<p>Herritarrei igorritako komunikazioetan erabiltzen da euskara gehien, euskara eta idazki elebidunak batuz gero. Batzordeetan banatzen diren agirien %80 ele bietan dago eta aktak ere ele bietan egiten dira batzorde batean izan ezik.</p> <p>*Langileen prestakuntza orokorra: eman diren ikastaroen edo formazioaren %50 euskaraz izan dira.</p> <p>* Tresna eta aplikazio informatikoak: Aplikazioen %75 daude euskaraz erabilgarri. Intranet sare nagusia euskaraz ere erabilgarri dago. Langileen %78ak erabiltzen du euskarazko bertsioa.</p> <p>* Hizkuntza paisaia: bai errotulazio eta noizbehinkako oharretan, udaleko sailetan euskarak oso presentzia esanguratsua du. Udaleko lau sailetan errotulazioa euskara hutsean dago, eta gainontzekoetan ele bietan. Oharrak, berriz, ele bietan izan ohi dira. Udaletik kanpokoetan, bide seinaleetan %90etik gorakoa da euskararen presentzia eta kale-izenetan %100.</p> <p>*Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak: elebitasuna nagusitzen da, eta %50etik gorakoetan euskarari lehentasuna ematen zaio.</p> <p>*Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan: hizkuntza irizpideak % 83 inguruan arautzen dira.</p> <p>* Kontratazio administratiboak: kontratazio administratiboak arautzeko garaian, % 80an ezartzen dira hizkuntza irizpideak.</p> <p>Azterketa kualitatiboari dagokionez, ondorio nagusiak eta hobetu beharrekoak:</p> <p>* Erabilera planaren kudeaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zeharkakotasun falta: euskara plana Euskara Zerbitzuaren baitan geratzen da. • Erabilera planaren jarraipena ez da behar bezala egiten. <p>* Euskararen ezagutza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Langileen ezagutza altua da. • Batzuetan erabilera ezak ezagutza murrizten du, baina alderantziz ere gertatu izan da. <p>* Euskararen erabilera:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzu hizkuntza: langileak nagusiki 	<p>Sumando las comunicaciones en euskera y las bilingües, el mayor uso del euskera se da en las comunicaciones por escrito a la ciudadanía. El 80% de la documentación que se presenta en las comisiones está en bilingüe. Las actas se redactan en bilingüe exceptuando las de una comisión.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Formación general del personal. El 50% de los cursos o formación se ha impartido en euskera. • Herramientas y aplicaciones informáticas. El 75% de las aplicaciones específicas se encuentra disponible en euskera. La intranet principal está disponible en euskera. El 78% de las personas empleadas utiliza la versión en euskera. • Paisaje lingüístico. El euskera tiene una presencia muy significativa en las rotulaciones y avisos ocasionales. En cuatro departamentos del Ayuntamiento la rotulación es únicamente en euskera y en el resto de departamentos en bilingüe. En cuanto a los avisos, se utiliza tanto el euskera como el castellano. En el caso de las señales viarias, se podría afirmar que su presencia está garantizada en más del 90% de los casos, y en las placas identificativas de las calles en el 100%. • Anuncios, publicidad y campañas. Predomina el bilingüismo, y en el 50% de los casos se le da prioridad al euskera. • Criterios lingüísticos de las subvenciones y contrataciones. Los criterios lingüísticos se regulan en torno a un 83 %. • Contrataciones administrativas. El 80% de las convocatorias de contrataciones administrativas regulan los criterios lingüísticos. <p>Por otra parte, en lo que se refiere a los datos cualitativos y mejoras a tener en cuenta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gestión de los planes de uso <ul style="list-style-type: none"> - Se observa una falta de transversalidad, el plan de euskera se limita al ámbito del Servicio de Euskera. - El plan de uso no es objeto de un seguimiento exhaustivo. • Conocimiento del euskera <ul style="list-style-type: none"> - El conocimiento del euskera es alto. - A veces la falta de uso reduce el conocimiento, pero también ocurre lo contrario. • Uso del euskera <ul style="list-style-type: none"> • Lengua de servicio: al ser mayoría el personal
--	--



euskaldunak izanik, bermatuta dago zerbitzu hizkuntza euskaraz.

- Lan hizkuntza: ahozkoan, langile askok gaztelaniaz egiteko joera du. Idatzizkoan ere nabaria da gazteleraz lan egiteko ohitura baina euskara erabiltzeko ahalegina egiten ari dira langileak eta urrats batzuk eman dituzte. Arlo honetan, kontuan izan behar da, sail batzuetan gaztelaniaz erabiltzen diren aplikazioak ere badirela.

*** Kanpo irudia:**

- Hizkuntza paisaian bermatuta dago euskararen erabilera.
- Udalaren Web orriko eduki guztiak euskaraz eta gazteleraz daude.

*** Hizkuntza irizpideak:**

Oinarrizko irizpideak euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko Udal Ordenantzan jasota badaude ere, ahuleziak ageri dira:

- Hizkuntza ofizialen erabilera zuzenerako barne-dokumentua banatu zaie langileei, baina oraindik ere hutsuneak nabari dira eguneroko lanjardunetan ezartzeko orduan.
- Batzuetan ez da betetze mailaren jarraipenik egiten.
- Ez dago jarraipenerako prozedura zehatzik.
- Gehienetan, Euskara Zerbitzua da erantzule bakarra.

*** Sentsibilizazioa eta parte hartzea:**

- Euskara planak ez die langile guztiei modu berean eragiten.
- Hizkuntza ohiturak oso errotuta daude.

*** Lidergoa:**

- Zeharkakotasuna ez da lortu.
- Udal ordezkarien eta zerbitzburuen inplikazioa indartu beharra dago.

1.2. V. plangintzaldirako proposaturiko lan ildoak.

Hona, laburtuta, lan ildoak:

vascoparlante, el uso del euskera como lengua de servicio está garantizado.

- Lengua de trabajo: en las relaciones verbales, es numeroso el personal que tiene tendencia a expresarse en castellano. Incluso en las relaciones escritas, resulta evidente el hábito de trabajar en castellano. No obstante, se está realizando un esfuerzo para introducir el euskera en las tareas habituales, y se están dando algunos pasos en ese sentido. También, debe tenerse en cuenta que en algunos departamentos aún se siguen utilizando aplicaciones informáticas en castellano.

• **Imagen externa**

- El uso del euskera está garantizado en el paisaje lingüístico.
- Todos los contenidos de la página Web del Ayuntamiento están en euskera y castellano.

• **Criterios lingüísticos**

- A pesar de que los criterios lingüísticos básicos están establecidos en la Ordenanza Municipal del Euskera, se observan puntos débiles. Son los siguientes:
 - A fin de garantizar el uso adecuado de las lenguas oficiales, se ha distribuido entre los trabajadores un manual de uso pero se observan carencias a la hora de aplicarlo en el trabajo diario.
 - En algunos casos no se hace un seguimiento de su grado de cumplimiento.
 - No existe procedimiento alguno para realizar un seguimiento.
 - La mayoría de las veces la responsabilidad se ciñe al Servicio de Euskera.

• **Sensibilización y participación**

- No todo el personal se ve afectado por los planes de uso del euskera.
- Los usos lingüísticos están muy arraigados.

• **Liderazgo**

- No se ha logrado la transversalidad.
- Se debe reforzar la implicación de los/las responsables institucionales.

1.2. Líneas de trabajo propuestas para el V periodo de planificación.

En resumen, estas son las más destacadas:



<p>* Erabilera planaren kudeaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara plana erakundetzea eta sail guztietara zabaltzea. • Jarraipena modu egokian egiteko prozedura ezartzea. <p>* Euskararen ezagutza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza eskakizunen plangintzarekin jarraitzea, etorkizuneko lanpostuetan ere euskararen ezagutza berma dadin. <p>* Euskararen erabilera:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzu hizkuntza: euskarak, gaztelaniak bezala, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izatea atal mota guztietan. Ahozkoan, herritarren eskaerari itxaron gabe, langile euskaldunak identifikatzeko sistemak ezartzea. ▪ Lan hizkuntza: baliabideak euskaraz eta langileen eskura jartzea; aplikazioak jartzerakoan, hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten lanpostuetan euskarazko bertsioa lehenestea, eta horiek erabiltzeko prestakuntza eskaintzea. <p>* Kanpo irudia:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza paisaian elebitasuna bermatzea, euskarari lehenetasuna emanda. ▪ Web orrian euskarazko bertsioa lehenestea. <p>* Hizkuntza irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza Ofizialen erabilera bermatzeko irizpideak lanjardunei egokitzea V. Plangintzaldirako ezarritako helburuen arabera. ▪ Hizkuntza irizpideak betetzeko neurriak aurreikustea: komunikazio egokia langileen artean eta jarraipenerako prozedura finkatzea. <p>* Sentsibilizazioa eta parte hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Erabilera planaren helburuak ohiko jardunean txertatzea. ▪ Komunikazio plana diseinatu eta burutzea, udaleko langile guztiei eragiteko, bai eta herritarrei ere. <p>* Lidergoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lidergo partekatua. ▪ Udal ordezkarien eta zerbitzuberuen inplikazioa bultzatzea. 	<p>· Gestión de los planes de uso</p> <ul style="list-style-type: none"> - Institucionalizar el plan de uso del euskera y difundirlo a todos los departamentos. - Establecer procedimientos que permitan un seguimiento fiable. <p>· Conocimiento del euskera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Continuar con el plan de los perfiles lingüísticos para garantizar el conocimiento del euskera en futuros puestos de trabajo. <p>- Uso del euskera</p> <p>* Lengua de servicio: el euskera ha de ser, al igual que el castellano, lengua de servicio al administrado, cualquiera que sea el tipo de unidad administrativa que preste el servicio en lo oral, proactividad de la administración, sin esperar a la demanda de la ciudadanía (establecimiento de sistemas para identificar al personal vasco parlante).</p> <p>* Lengua de trabajo: hacer entrega al personal de los recursos en euskera, priorizar la versión en euskera en la instalación de aplicaciones a aquellas personas que ocupan puestos con el perfil lingüístico acreditado y ofrecer la formación necesaria para su uso.</p> <p>Imagen externa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garantizar un paisaje lingüístico bilingüe, priorizando siempre el euskera. - Garantizar la presencia del euskera en la página Web y, priorizar la versión en euskera. <p>· Criterios lingüísticos</p> <ul style="list-style-type: none"> - A fin de garantizar el Uso de las Lenguas Oficiales en las diferentes actividades laborales, adecuar los criterios a seguir según los objetivos fijados para el V periodo de planificación. - Prever y adoptar medidas para el cumplimiento de los criterios lingüísticos, comunicarlos adecuadamente al personal y establecer el procedimiento para su seguimiento. <p>· Sensibilización y participación</p> <ul style="list-style-type: none"> - Integrar los objetivos del plan de uso del euskera en la actividad habitual. - Diseño y ejecución del plan de comunicación, de forma que afecte a todo el personal de la institución, así como a la ciudadanía. <p>· Liderazgo</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liderazgo compartido. - Reforzar la implicación de los/las responsables municipales y responsables de departamentos.
---	--



2. ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA.

Plan honen eragin aldia 2017ko abenduaren 31n bukatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza normalkuntzarako prozesuaren V. plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

Plan honen eragin eremuak Elgoibarko Udala eta bere ardurapeko erakunde autonomiadunak hartzen ditu.

* Euskararen erabilera planeko parte-hartzaileak:

Ondorengoak dira erabilera normalizatzeko planean parte hartuko dutenak:

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direnez, zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiak ukitutako langile eta zerbitzuek.
- Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data gainditua izanik, hizkuntza eskakizuna bera (edo baxuago bat) egiaztaturik duten langileek.
- Derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan dihardutenek ere aukera izango dute planean parte hartzeko euskara gaitasuna egiaztaturik badute, euskararen gaitasuna neurriren batean izatea baita gakoa.

3. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA.

86/1997ko Dekretuaren 11. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen indizea ezartzen du. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez: $\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$.

Horren baitan, 5. Plangintzaldi honetan, Elgoibarko Udalaren nahitaez bete beharreko indizea **%67,61ekoa da 2006 urteko erroldako datu soziolinguistikoen arabera.**

Plangintzaldi honetan euskara lan hizkuntza izatea helburu izanik, Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak udal lanpostu guztien azterketa egin du eta

2. ÁMBITO DE APLICACIÓN Y PERIODO DE VIGENCIA.

El periodo de vigencia de este Plan se extenderá hasta el 31 de diciembre de 2017, es decir, la fecha de finalización del V periodo de planificación del proceso de normalización lingüística en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Este Plan incluye en su ámbito al Ayuntamiento y a entidades autónomas que funcionan bajo su jurisdicción.

* Participantes en el plan de normalización del uso del euskera:

Las personas participantes en el plan de de normalización serán las siguientes:

- Puesto que deben garantizarse los derechos lingüísticos de la ciudadanía, las personas empleadas afectadas por la concepción de la lengua de servicio.
- También deben participar las y los empleados públicos que superada la fecha de preceptividad del perfil lingüístico de su puesto de trabajo hayan acreditado el perfil lingüístico correspondiente o uno más bajo.
- Quienes cubran puestos de trabajo con perfil lingüístico sin fecha de preceptividad también podrán participar en el plan si han acreditado la competencia en euskera, puesto que la clave reside en poseer cierta capacidad en euskera.

3. ÍNDICE DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO.

El Decreto 86/1997, en su artículo 11, establece el índice de obligado cumplimiento que las entidades deberán alcanzar en materia de perfiles lingüísticos preceptivos. Este índice viene determinado por los datos sociolingüísticos de población recogidos en el Censo o Estadística de Población y Vivienda y se establece de la siguiente manera: $\text{Euskaldunes} + (\text{Cuasi Euskaldunes})$.

El índice de obligado cumplimiento del Ayuntamiento de Elgoibar en este 5º Periodo de Planificación es del **67,61%**, obtenido a partir de los datos sociolingüísticos del censo del año 2006.

Dado que en este periodo de planificación el objetivo es lograr que el euskera sea lengua de trabajo. el Ayuntamiento de Elgoibar ha llevado a cabo un



euskaraz lan egitea ahalbidetuko duten derrigortasun data berrien proposamena egiten du. Proposamen hori dokumentu honekin batera Tokiko Gobernu Batzarraren onarpenera jarriko da. Ikus 2. eranskina: Atalen sailkapena eta proposamenak atalez atal.

4. V. PLANGINTZALDIA: HELBURU OROKORRAK.

4.1. Egitasmo honen helburu orokorrak:

- Elgoibarko Udalaren esparru guztietan euskara zerbitzu hizkuntza izango dela bermatzea. Hau da, herritarrek Elgoibarko Udalarekin dituzten harremanetan, ahoz zein idatziz, hizkuntza ofizial bat zein bestea, erabiltzeko eskubidea bermatzea.
- Beste administrazioekiko harreman hizkuntza, ahoz zein idatziz, euskara izatea bideragarria den guztietan.
- Euskara Elgoibarko Udaleko lan hizkuntza izan dadin ahalbidetzea, ahoz zein idatziz, prestakuntza egokiaz baliatuta, progresibotasunez eta etengabe.

4.2. Arlokako helburuak:

Ondorengoak dira arlorik adierazgarrienak:

1. Arloa: Langileen hizkuntza gaitasuna.
2. Arloa: kanpo harremanak.
3. Arloa: barne harremanak.
4. Arloa: Hizkuntza paisaia.
5. Arloa: Baliabide informatikoak.

Helburuak eta proposamenak arloz arlo:

1. Arloa: Langileen hizkuntza gaitasuna.

Lanpostu zerrendak eguneratzea, hizkuntza eskakizunak egokitzea, derrigortasun datak ezartzea eta prestakuntza antolatzea.

**Hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila.*

69 lanpostutatik 6 lanpostu hutsik daude (4 DD ezarrita dutenak eta 2 DD ezarrita ez dutenak) . Guztien artetik, 55 lanpostuk dute derrigortasun data esleitura, eta horietatik 4 hutsik daude. Derrigortasuna duten langileen artetik 43k egiaztatuta dute, beraz, Elgoibarko Udalean hizkuntza eskakizunen betetze maila % 84,31koa da. Derrigortasunik ez duten 4 lanpostutan, aldiz, langileek hizkuntza eskakizunen bat egiaztatu dute.

análisis de todos los puestos y, con el fin de que el euskera sea lengua de trabajo, ha propuesto nuevas fechas de preceptividad, para su aprobación junto con este documento por parte de la Junta de Gobierno Local. Ver anexo 2: Unidades Administrativas y cambios propuestos en cada departamento.

4. V PLAN: OBJETIVOS GENERALES.

4.1. Objetivos generales de este plan:

- Garantizar que el euskera sea lengua de servicio en todos los ámbitos del Ayuntamiento de Elgoibar. Es decir, garantizar el derecho a utilizar cualquiera de las dos lenguas oficiales, tanto oralmente como por escrito, en las relaciones de la ciudadanía con el Ayuntamiento de Elgoibar.
- Hacer que el euskera sea lengua de relación con otras administraciones, tanto oralmente como por escrito, siempre que sea viable.
- Posibilitar que el euskera sea lengua de trabajo en el Ayuntamiento de Elgoibar, tanto oralmente como por escrito, de modo progresivo y continuo, con formación adecuada de apoyo.

4.2. Objetivos por ámbitos:

Los ámbitos más relevantes son los siguientes:

1. Aptitudes lingüísticas de los empleados/as.
2. Relaciones externas.
3. Relaciones internas.
4. Paisaje lingüístico.
5. Recursos informáticos.

Objetivos y propuestas por ámbitos:

1. Aptitudes lingüísticas de los empleados/as.

Actualizar los puestos de trabajo, asignar los perfiles lingüísticos, establecer la preceptividad y organizar la formación.

**Nivel de acreditación de perfiles lingüísticos.*

De 69 puestos 6 están vacantes (4 con DD+ y 2 sin – DD). Del total de los puestos 55 tienen fecha de preceptividad, de los cuales 4 están vacantes. De los trabajadores que tienen obligatoriedad, 43 ya lo han acreditado, por lo que la acreditación lingüística del Ayuntamiento de Elgoibar es del 84,31%. 4 puestos que no tenían asignado la preceptividad, han acreditado algún perfil.

ELGOIBARKO
UDALA



AYUNTAMIENTO
DE
ELGOIBAR

**Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabeak:
prestakuntza beharizanak.*

Dagokien derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten langileak 8 dira. Horietako bi langilek Kontu-hartzaitz lan egiten dute, beste batek Hirigintzan eta beste bostek Udaltzaingoan. “*Hizkuntza egoerari lotuta lehenesten diren lanpostuak*” atalean diogun bezala, zortzi langile horietako hiru (208, 402, 404) sartu ditugu V. Plangintzaldi honetan, bada, gainerakoak, adina eta beste hainbat arazo kontuan harturik, plan honetatik kanpo uztea deliberatu da.

**Helburuak eta proposamenak.*

Helburua, langile bakoitza, normaltasun osoz, bere eguneroko zereginak euskaraz egiteko gai izatea da. Horretarako, prestakuntza eta trebakuntza saioak aurreikusten da.

Langileen prestakuntzarako proposamena hau da:

1. Langile batzuk, nahiz eta euren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan, zailtasunak dituzte eguneroko lana euskaraz egiteko. Arazo horri irtenbidea emateko proposatzen dira trebakuntza saioak.
2. Aurrerantzean, trebakuntza era puntualean planteatzeko asmoa dugu, hau da, langile bakoitzak dituen behar jakinen arabera, adibidez, txostenak egiten trebatzeko beharra, oharrak idazten trebatzekoa, e.a., egoki irizten den ordu kopurua zehaztuz eta, ahal dela, saio pertsonalatuak antolatuz, eraginkortasunari begira.

2. Arloa: kanpo harremanak.

Udalaren kanpo harremanik ohikoenak honako hauekin izaten dira: herritarrak, erakunde publikoak, zerbitzu enpresak eta hornitzaileak.

**Helburuak eta proposamenak.*

- *Ahozko kanpo harremanak:*

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea: jendaurreko lanpostuetan ez dago arazorik hizkuntza gaitasunari dagokionez, baina, agian, irizpide argiagoak finkatzea komeni da, eta herritarrak zer hitz egiten duen zain egon gabe, lehenengo hitza

**Perfiles lingüísticos sin acreditar: preparación.*

Son 8 los empleados que no han acreditado el perfil lingüístico. Dos de ellos realizan su tarea en el departamento de Intervención, otro lo hace en Urbanismo y otros cinco pertenecen a la Policía Municipal. Como informamos en el apartado *Puestos con prioridad según la situación lingüística*, en el V. Plan contemplaremos la situación lingüística de tres (208, 402, 404) de los ocho empleados que no han acreditado el perfil; los restantes, debido a diferentes causas, quedarán fuera del mismo.

**Objetivos y propuestas.*

El objetivo principal es que cada empleado/a pueda ser capaz de hacer uso del euskera en sus tareas cotidianas. Para ello, se prevé que serán necesarios los cursos específicos de capacitación.

La propuesta de capacitación para los empleados, es la siguiente:

1. A pesar de que muchos empleados tienen ya acreditado el perfil correspondiente a su puesto, manifiestan dificultad a la hora de efectuar su tarea en euskera. He aquí la causa por la que se requieren los cursos de capacitación.
2. En adelante, tenemos pensado plantear estos cursos de forma puntual y específica, es decir, según las necesidades concretas de cada empleado/a, bien para realizar informes, bien para redactar actas etc., se dispondrá un determinado margen de horas y a poder ser estas actuaciones se harán de forma personalizada.

2. Relaciones externas.

Estas relaciones externas se mantienen habitualmente con la ciudadanía, instituciones públicas, empresas de servicios y proveedores.

**Objetivos y propuestas.*

- *Relaciones externas a nivel oral:*

Garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía: no existe problema alguno en lo referente a la capacidad lingüística, pero, quizá, convendría marcar unos criterios más claros y no esperar a que el ciudadano o la ciudadana se dirija en una



euskaraz egitea bultzatu beharko dugu, hala egiten ez den kasuetan, behintzat.

- *Idatzizko kanpo harremanak:*

